BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

722

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 14koa, Nazioartekotze zuzendariarena, Elkartzen programako laguntzen 2011ko onuradunen zerrenda argitaratzeko dena. Programa hori Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2005ko martxoaren 15eko Aginduaz arautu zen, irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak emateko kanpo sustapeneko ekintzak egin ditzaten; 2011. urterako deialdia, bestalde, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen 2011ko martxoaren 9ko Ebazpenaz egin zen.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2005eko martxoaren 15ean emandako Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, laguntza horien onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da orain onuradunen zerrenda ebazpen honen bidez. Agindu horrek irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo sustapeneko ekintzetarako laguntzak emateko Elkartzen programa arautu zuen.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak lagundu du programa hau finantzatzen; horrenbestez, Europako Erkidegoko araudian informazioari eta publizitateari buruz xedatzen diren betekizunak bete beharko dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriaz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Elkartzen programako laguntzen 2011ko onuradunen zerrenda argitaratzea, ebazpen honen eranskinean agertzen den moduan. Programa hori Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduaz arautu zen, irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak emateko kanpo sustapeneko ekintzak egin ditzaten.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak ehuneko berrogeita hamarreko laguntza eman du programa hau finantzatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 14a.

Nazioartekotzeko zuzendaria,
CATALINA CHAMORRO SILGADO.

ERANSKINA

ELKARTZEN 2011 PROGRAMA

1	Acicae	G48562698	Bizkaia	21.085,60
2	Afemma	G46167458	Valentzia	50.168,11
3	AFM	G20065637	Gipuzkoa	140.976,40
4	Agragex	G48297139	Bizkaia	68.619,30
5	AMT	G20385092	Gipuzkoa	126.352,21
6	Anmopyc	G50098508	Zaragoza	48.561,02
7	Ascene	G48557458	Araba	29.766,00
8	Cámara del Libro	G48117352	Bizkaia	20.098,20
9	Asvefat	G20774568	Gipuzkoa	11.040,60
10	Eiken	G95339750	Bizkaia	8.550,00
11	Asociación Armera	G20120879	Gipuzkoa	54.820,00
12	Ibaia	G20109245	Gipuzkoa	3.229,90
13	AEVC	G95147187	Bizkaia	1.800,00
14	Energy Supply Chai	N G20983524	Gipuzkoa	58.260,41
15	HEGAN	G48968978	Bizkaia	22.568,30
16	Cluster Energía	G48888895	Bizkaia	27.294,52
17	Enbor	G20170445	Gipuzkoa	104.992,33
18	Eraikune	G95611596	Bizkaia	7.835,20
19	ESLE	G01390780	Bizkaia	36.468,01
20	Fluidex	G48414411	Bizkaia	94.070,95
21	Fundigex	G48186670	Bizkaia	121.443,41
22	Gaia	G20082509	Gipuzkoa	73.541,84
23	Herramex	G28524668	Gipuzkoa	24.699,20
24	Hetel	G48409205	Bizkaia	5.469,20
25	Langune	G75019257	Gipuzkoa	18.172,80
26	Mafex	G95333340	Bizkaia	74.622,33
27	Siderex	G48843395	Bizkaia	46.039,39
28	Uniport	G48644785	Bizkaia	85.663,37
			Guztira	1.386.208,60